

2-Kudeaketa Politika

NEIKER Sozietate Publikoa Ikerketa, Garapen eta Teknologiko eta Berrikuntzarako Erakunde Publiko bat da, eta ezagutza, soluzio transferigarriak eta zerbitzuak sortzea ditu estrategia eta helburuak, nekazaritzako elikagaien sektoreari balioa emateko, eta horren lehiakortasuna eta iraunkortasuna zein Ingurumenarena hobetzeko. Horrekin, aktiboki laguntzen du Eusko Jaurlaritzaren helburuak hedatzen.

Gure Kudeaketak segurtatu egiten du aplikatu beharreko arauetan eta gure borondatez aukeratutako erreferentziazko esparruetan ezarritako baldintzak betetzen direla, honako printzipio hauek gidatzen duten Bikaintasun Eredua orientatuta:

- **Pertsonen inplikazioa, motibazioa eta gogobetetzea**, lidergo partekatuaren printzipioetatik abiatuta, beraien askatasuna eta erantzukizuna bultzatuz berdintasun printzipioetan oinarrituta, segurtasun eta osasun baldintzak bermatuz, familiako bizitza bateratzen lagunduz eta hiru hizkuntzako lan giroa sustatuz, pertsonen garapen profesionalean eta pertsonalean laguntzeko.
- **Bikaintasun Zientifikoarekiko konpromisoa**, nazioarteko komunitate zientifikoak aitortuko dituen protokoloak eta ingurumena zaindiko duten aplikazioak garatzeko gai diren profesionalak prestatuz, nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna, ezagutza eta iraunkortasuna hobetzen laguntzeko.
- **Gure bezeroen gogobetetzea eta leialtasuna**, balio erantsi handiko soluzio transferigarriak eskainiz, beraien beharrei eta aurreikuspenei egokিত, kexak eta erreklamazioak egoki kudeatzea bermatuko duen gardentasun eta konfiantza esparru baten barruan.
- Garatzen ditugun **jardueren eta kudeaketaren eraginkortasuna eta etengabeko hobekuntza**, antolakuntzaren ziurgabetasuna kudeatzeko arriskuak barne.
- **Hornitzaileen kudeaketa bikaina**, tratu eta aukera berdintasuna bermatuko duena, gure erosketa eta kontratazioetan austeritate ekonomikoko, ingurumen iraunkortasuneko eta elkartasun sozialeko irizpideak sartuz.
- **Elkarrizketa proaktiboa sektoreko eragileekin**, gure zerbitzuaren irizpideetan oinarritutako etikoak eta informazioa gardena jarritz.
- **Ingurumenaren iraunkortasunerako konpromisoa**, kutsaduraren prebentzioaren eta kontrolaren bitartez, legeriak eta aplikagarri diren beste ingurumen-betekizunak betez eta gure jarduerak eragiten dituen ingurumen eraginak murriztuz eta iraunkortasunaren kontzeptua barneratuz, bai gure helburu estrategikoetan bai eguneroko kudeaketan ere.
- **Gizartearekiko konpromisoa**, ezagutza eta teknologia hedatuz, argitalpen zientifiko eta teknikoaren bitartez eta foro biltzarretan ekarpenak eginez, praktikarik onenak bultzatuz eta garapen global solidarioa eta orekatua babestuko duten baliabideak eta ekimenak eskainiz, interes taldeen eskakizunei erantzunez.
- **Langile guztien konpromisoa** informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko lan jardueraren barne, baita igorritako emaitzei buruzko inpartzialtasuna ere.

Bikaintasun politika honen oinarrian **pertsonak daude, antolatze egitura malgu eta garden batean, prozesuen bidez kudeatuta eta emaitzetara bideratuta, baldintza egokiak, baliabide nahikoak eta burututako ekintzen gainbegiratzea ziurtatzen duen zuzendaritza konprometitu batekin.**

Zuzendari nagusia



O. Unamunzaga